

Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal Haur eta Gazte Literatura garaikidean

Tesiaren egilea: Ainhoa Urzelai Vicente

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Doktorego-programa: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Doktoregoa

Jakintza-arloa: Literatura

Tesi-zuzendaria: Mari Jose Olaziregi Alustiza

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honen helburu nagusia da aztertzea nola egin den Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal Haur eta Gazte Literaturan (hemendik aurrera HGL), hau da, Guda Karlistak, Lehen Mundu Gerra, Espainiako Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra, Frankismoa eta euskal gatazka zenbat eta nola landu den aztertzea.

Guztira 77 obrak osatu dute corpusa eta horien guztien analisi kritiko sakon eta sistematikoa eskaini dut. Corpusa aztertzeko, analisi-eredu bat sortu dut, zeina narratologiaren, Memoria Ikasketen eta Genero Ikasketen gurutzaketatik eratortzen den. Horrek ahalbidetu du aztertzea, besteak beste, gerra edo gatazkaren gainean erakusten diren alderdiak, biktima/biktimario dikotomiak eta haien arteko harremanak, narrazioetan transmititzen den ideologia, gizon eta emakumeen irudikapenak edo gerrekin lotutako genero-gatazkak. Aipatutako helburuarekin batera, lan honek euskarazko HGLri buruzko hurbilpen teoriko eta praktikoa garaikideen bilakaeraz jabetzea du xede, baita euskal literaturan eta HGLn oro har memoria historikoa nola landu den berariaz ikertu duten lanen azterketa egitea ere. Hirugarrenik, memoria historikoa eskolan lantzeko sortu diren proposamen didaktikoen diagnostikoa egitea du helburu, etorkizuneko ikerketak bideratze aldera.

Egindako azterketak erakutsi du euskal HGLk uste baino gehiago heldu diola gure iragan gatazkatsuen errepresentazioari, batez ere XXI. mendetik aurrera, helduen literaturan eta inguruko HGLko sistemetan baino beranduago bada ere. Estetika errealista batetik abiatuta, aztertutako liburuek gerrek eragiten duten sufrimenduaren testigantza helarazten diote irakurle gazteari; hau da, gerrarena eta haren eskutik doan heriotzarena. Horiek ez dira gai tabua HGLn, eta beraz, corpusak frogatzen du HGLk gai zailez hitz egiteko balio duela.

Tesi-lan honi katalogo batek ematen dio amaiera. Bertan, corpusaren parte diren 77 literatura-lanak biltzen dira, haien gaineko informazio teknikoa emateko eta liburu bakoitzak gerra edo gatazka armatuarekin lotutako zein alderdi zehatz aipatzen duen modu praktikoan adierazteko.